

1. UDALEKUETAN PARTE HARTZEKO:

- 1.- Herrian erroldatua edo eskolarizatua egotea.
- 2.- HH3 eta LH6 bitarteko mailetan egotea, biak barne.

AURRETIKO IZEN-EMATEA:

Otsailak 12tik 24 (biak barne)

- 1.- Pertsona bakoitzak aurretiko izen-emate eskaera bakar bat egin dezake hamabostaldi bakoitzean.

- **1. hamabostaldia (360 plaza): Uztailaren 1-15**
- **2. hamabostaldia (360 plaza): Uztailaren 16-30**

- 2.- Pertsona baten izenean eskaera bat baino gehiago aurkezten bada hamabostaldi batean, bat bakarrik onartuko da eta besteak baliogabeak izango dira. Kasu honetan, baliozko eskaera zein den Oiartzungo Udalak erabakiko du, eta, gainera, eskatzaileak iruzur ahalegina egin duela irudituko balitzaio, aurretiko izen-emate guztiak baliogabetu ditzake.
- 3.- Plaza horietaz gain, udalak 40 plaza gehiago gordeko ditu hamabostaldi bakoitzean, udalak, beste zerbitzuetatik eratorritako beharrei erantzuteko.
- 4.- Aurretiko izen-emate eskaera **otsailaren 12tik 24ra** bitarte egingo da **GAZTE OIARTZUN** blogaren bidez: www.gazteoiartzun.net (arazoak izanez gero Ludotekako kideak lagunduko dute).
- 5.- Aurretiko izen-emate zerrenda **otsailaren 28tik martxoak 4ra** jendaurrean jarriko da www.gazteoiartzun.net eta Ludotekan bertan.

2. ZOZKETA:

- 1.- Hamabostaldi batean plazen muga gainditzen ez bada, guztiak onartuko dira.
- 2.- Hamabostaldi batean 360 plaza eskaera baino gehiago jasotzen badira, zozketa egingo da martxoaren 10ean Udal Pleno aretoan..
- 3.- **Martxoaren 12tik 17ra** zozketaren emaitzak kontsultatu ahal izango dira www.gazteoiartzun.net eta Ludotekan bertan (Arazoak izanez gero Ludotekako kideak lagunduko dute).
- 4.- Hamabostaldi batean plazarik gabe geratu direnak itxarote-zerrendan geratuko dira, zozketan zehaztutako hurrenkeraren arabera. Udalak beretzat jaso dituen 40 plaza horiek beteko ez balira edota plaza lortutakoren batek plazarik uko egiten badio edo galtzen badu erabiliko da zerrenda. Halaber, hasiera batean osatu gabe dagoen hamabostaldian izena emateko aukera eskainiko zaie, hala badagokio, hurrenkera horren arabera.
- 5.- Familia-unitateko kideren batek zozketa bidez plazarik lortzen ez badu (eta beste batek bai), itxaron zerrendan lehentasuna emango zaio zerrendaren hurrenkera kontuan hartu gabe, dagokion moduan egoera hori egiaztatu eta gero.

ORDAINKETA ETA PLAZEN ERRESERBA:

- 1.- Izen-ematea onartua izan ahal izateko, plaza egokitu zaien pertsonen udalekuen ordainsaria **martxoaren 17-27 bitarte** ordaindu beharko dute eta baita beharrezko agiri guztiak (irudi-baimena bi gurasuek sinatuta, osasun txartela eta ordainagiria) aurkeztu. Epe

horren barruan egiten ez bada, eskaera horri baja emango zaio eta plaza hori itxaron zerrendako hurrengoak beteko du –inor balego–.

2.- **Maiatzaren 31a** arte plazari uko eginez gero, Udalak dirua bueltatuko du. Data horretatik aurrera ez da dirurik itzuliko.

MATRIKULA MOTA /	HAMABOSTALDI BAKOITZEKO PREZIOA
Orokorra	49,53 €
Orokorra autobusarekin	65,64 €
Matrikulatutako hiru haur	38,41 € / haur bakoitzeko
Matrikulatutako hiru haur autobusarekin	50,79 € / haur bakoitzeko
Familia gurasobakarra edo alarguna	34,68 € / haur bakoitzeko
Familia gurasobakarra edo alarguna autobusarekin	45,93 € / haur bakoitzeko

KONTU KORRONTEA (LABORALA): ES66-3035 0126 64 1260048216

3. UDALEKUTAKO BILERA:

Ekainak 10, 17:00etan, Udal Pleno aretoan

DATAK:

- 1. hamabostaldia: uztailak 1-15
- 2. hamabostaldia: uztailak 16-30
- Aurretiko matrikula: otsailak 12-24
- Aurretiko izen-emateen zerrenda: otsailak 28 - martxoak 4
- Zozketa: martxoak 10
- Zozketako behin-betiko zerrenda: martxoaren 12 - 17
- Behin-betiko izen-ematea: martxoak 18 - 27
- Diru itzulera eskatzeko azken eguna: maiatzak 31
- Udalekutako bilera: ekainak 10, 17:00etan Udaletxeko Pleno Aretoan

4. INFORMAZIO GEHIAGO:

- www.gazteoiartzun.net
- Udalekuak.oiartzun@gmail.com
- 645005496 / 943506412. Abaraxka Ludotekan 16:00-20:00